

berezia instituzio horrek; baina baliozkoa da gero eta gehiago beste lurraldeetan ere, helduen bataioak ugarituz doazen arabera.

Erljio-zientziek, katekumeno hitza, kristaugaria adieraztetik, beste erlijioetara ere zabaldu egin dute.

Ik. Bataioa; Sarbidapen-erritoak.

Katekumenoen meza

Sin.: Kristaugaien meza

Eukaristiaren lehen parteari deritza horrela, Elizaren lehen mendeetan katekumenoek horretan esku hartzerik bazutelako, baina ez *anaforan edo *mezako kanonean.

Katexima

Ik. Kristau-dotrina.

Katezismoa

Ik. Kristau-dotrina.

Katholikos

Lehen mendeetan Antiokiako *patriarkatzatik bereizirik Elizetako buruek eramaten zuten titulu hori.

Gaur, berriz, nestoriarren eta armeniarren eta Ethiopiako patriarkei dagokie deitura berbera.

Ik. Eliza armeniarra; Nestorianismoa.

Katolikoa

Izena denez, kristau fededuna da, Eliza erromatarraren fedea aitortzen duena eta horko *hierarkiarekiko menekotasunean bizi dena. (Katoliko hitza adjektibotzat erabiltzen da sarritan, esanahi ezberdinez; horretarako ik. Elizaren katolikotasuna).

Ik. Eliza Katolikoa; Katolizismoa.

Katoliko zaharrak

Vatikanoko I. Kontzilioak definituriko aita santuaren *hutsezintasun edo infalibilitatearen dogma ukatu zutenek sorturiko eliz elkarte aldendua.

Beraien gidaria München-eko Ignaz von Döllinger, Elizaren historigilea, izan zen. Horren jarraikariak eta Austriako, Suitzako eta Frantziako antzeko taldeak Holandako jansenistekin elkartu ziren. 1873an ordenatu zuten beren lehen apezpikua: J.H. Reinkens. Alemanian bizirik dirau talde horrek, nahiz eta gutxi izan elkartekideak. Elizarteko Kontseilu Ekumenikoan sartuta dago Katoliko Zaharren Eliza.

Katolizismoa

Kristautasunaren hiru forma nagusienetako, *Ortodoxiarekin eta *Protestantismoarekin batera; Eliza Katolikoaren *irakasbidearen, ihardunbidearen eta *araubidearen sistema da, hain zuzen. Erromatar Eliza Katolikoa bera adierazteko ere erabili ohi da. Ik. Erlijiozko ihardunbidea.

Kristautasuneko *Konfesio nagusia da bera, fededunen kopuruari begiratzera. Hala ere, katolikoek ez dute besteen arteko Konfesiotsat hartzen beren Eliza, eta bai Kristoren Eliza egiazko bakartzat, nahiz eta onartu beste Konfesioetan ere kristau-Eliza egiazkoaren hainbat elementu daudela eta salbamenerako bide direla ezagutu. Katolizismoaren berezitasuna, bai Ortodoxiari begira eta batez ere Protestantismoari begira, ekumenikotzat dauzkan azken hiru Kontzilioek markatu dute: Trentokoak (1445-1463), Vatikanoko lehenengoak (1869-1870), Vatikanoko bigarrenak (1962-1965).

Irakasbideari dagokionez, katolizismoak oso bizia du *tradizioarekiko atxekimendua; baina horrekin batera Elizaren irakaslego biziari ematen dio garrantzi handia, Eskrituraren eta tradizioaren adierazle jatortzat hartzen bait dute hori. Izatez, Erreformaren ondoren protestantismoa bereizi zenetik, Elizari buruzko irakasbidea hedatu eta nabarmendu zuen bereziki katolizismoak: Elizaren egitura, aita santuaren ministeritza eta horren *hutsezintasuna, apezpikuen kolegiatasuna.

XVIII. eta XIX. mendeetan, korrante filosofiko eta politiko modernoek buruz ukurtasunez eta beldurrez, bere baitan itxita ibili ondoren, XX. mendean, eta bereziki bigarren Munduzabaleko Gerratearen ondoren, mundu modernoarekiko, beste erlijioekiko eta bereziki beste kristau-Konfesioekiko irekiera-mugimendua indartu zuen, Vatikanoko II. Kontzilioan berretsi eta aurrera bultzatu zuena.

Katolizismoak izaera oso zentralista du, erakunde hierarkikoan (*aita santua, *apezpikuak, *apaizak, *diakonoak) oinarritua. Hala ere, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren batez ere lekuan lekuko Elizei (*dioziesei) eta maila guztietako Eliza partikularrei beren berezitasuna aitortu die, aitortu behintzat. Ik. Eliza partikularra; (Lekuan) lekuko Eliza.

Katolikoek bizi erlijiozkoa *sakramentuetan oinarritzen da bereziki; erdian eukaristia (*meza) dago. Zazpi sakramentu ezagutzen ditu: *Bataioa, *Sendotza, *Eukaristia, *Ordena(zioa), *Penitentzia, *Ezkontza eta *Gaixoen oliadura. Dena dela, munduaren er-

Kautotasuna

lijiozko egitura osoa ulertzen du katolizismoak funtsezko sakramentu-egituraren arabera.

Katolizismoak garrantzi handia eman dio misio-ekintzari, Ebanjelioa Herri guztietara aldarrikatzeari eta Eliza hedatzeari; hor agertu du bereziki bere bizitasuna, eta, era berean, haren "katolikotasun" dinamikoaren ezaugarritzat ekarri izan dute teologok.

Ik. Eliza katolikoa; Elizaren katolikotasuna; Misioak; Hierarkia.

Paulo Agirrebaltzategi

Kautotasuna

Elizaren hizkeran, bereziki Bibliari buruz erabiltzen den hitza, liburu edo testuren bat benetan egotzen zaion autorearena dela edota gureganatu den testua jatorriko testuarekin berdina dela adierazteko. Eliza Katolikoak *Bulgata izeneko Bibliaren itzulpena kautotzat dauka; baina kautotasun horrek ez dio jatorrizko testu historikoari begiratzen, eta bai Elizaren sinemenari: honen *fedea benetan eta egiazki adierazten duela esan nahi du.

Ik. Exegesia; Biblia.

Kenosia

Grezieratiko hitza da; hustutzea edo ezerezero bihurtzen esan nahi du. Jainkoaren hitza gizon egitean, bere jainkotasunari zegozkion bikaintasunez erantzita edo, agertu zela adierazten du: morroi gisa eta heriotzaren menpeko. *Misterio hori azaltzeko teoria ezberdinak eman dituzte teologok.

Ik. Gizakundea.

Kerigma (Kerygma)

Grezieratiko hitz honek "aldarrikapena" adierazten du jatorriz. Kristau-hizkeran Berrioren lehen aldarrikapena da, fedegabeak federa eta bataiora deitzeko. Ebangelizazioaren eginkizun behinena da. Kristau-hezierako lehen urratsa da kerigma; horren ondoren datoz *katekesia eta *teologia.

Edozein prediku-moduren helburutzat ere ulertzen da: hots, kristauaren fedea suspertzea eta hori bekatutik onbideratzea.

Ik. Ebanjelizazioa; Bihotz-berrikuntza.

Kerigmatika

Pastoralta-teologiako parte da, Ebanjelioaren aldarrikapena edo *kerigma estudiatzen duena.

Kerigma-teologia

Ik. Teologia kerigmatikoa.

Kerubikon

Errito bizantziar eta armeniarretan, sarrrera handia izeneko erritoan koruak abesten duen goratzarrea.

Ik. Sarrrera handia; Errito bizantziarra; Errito armeniarra.

Kerubinak

Aingeruen bederatzi ordenatan bigarrena, *serafinen ondoren. Testamentu Zaharrean Jainkoaren aukia edo jargoia edonolako *profanaziotatik gordetzeko eginkizuna betetzen dute.

Ik. Aingeruak

Kietismoa

Orokorki harturik, erlijiozko jarrera da, Jainkoarekin bat egiteko, gizon-emakumeek geldi eta ezer egin gabe egon behar dutela uste duena. Erlijio guztietako mistikoen artean aurki daiteke horrelako erlijiokerarik. Baina batez ere Ekialdeko erlijio mistikoen ezaugarria dela esan daiteke. Erlijiozko arazokeria edo aktibismoaren kontrakoa da. Ik. Erlijio mistikoa, Jainismoa.

Bereziki, XVII. mendeko Eliza Katolikoaren barruko mugimendua da, batez ere Espainian, Frantzia eta Italian zabalduz. Horren arabera, santutasuna lortzeko, edozein *jaieratan eta fedezko biziera osoan erabat sosegatua eta hartzailea izan behar du kristauaren jarrerak, edonolako ahalegin edo neke bartzertuz, eta norberaren borondatea ere Jainkoaren aurrean suntsituz.

Idazle kietista ezagunenak Molinos, Guyon eta Fenelon izan ziren.

Ik. Amerikanismoa.

Kiliasmoa

Milenarismoa adierazteko beste hitza da, grezieratik datorrena.

Ik. Milenarismoa.

Kirieleisonak

Ik. Litaniak.

Kiromantzia

Eskuko arrastoak edo eskuaren forma aztertuz, inoren etorkizunari eta *zoriari igartzea da.

Ik. Aztiapena; Mantika.

Kirotonia

Sin.: Eskuezarpena

Grezierazko erritoan apaizgintza edo